



GAUR EGUN, 1.000 GEYSER INGURU DAUDE MUNDUAN... horietatik 80 Txilen daude, Andean, itsas mailaren gainetik 4.300 metrora. Geyser horiek Géyseres del Tatio izeneko eremu geotermikoa osatzen dute.

Geyserrak egunero aktibatzen dira egunsentian... goizean goiz. Goizeko

5:30ak aldera, lurpean irakiten dagoen ura zorrotada txikitzen hasten da azaleratzen. Kanpoko tenperatura beti da oso hotza; beraz, ur beroaren eta kanpoko hotzaren kontrastearen ondorioz, fumarola izugarriak sortzen dira. Minutu gutxian, zerurantz abiatzen diren lurrunezko zutabez betetzen da geyser-eremu osoa.



Tatioko GEYSERRAK





Ura 85 graduko tenperaturan irteten da, eta gune batzuetan igerileku natural txikiak sortzen ditu. Ur termalak dira, eta jendeak bainatzeko aprobetxatzen ditu.

Tatioko geysir-eremua 6.000 metroko altuerara iristen diren mendiz inguratuta dago. Mendi horietako bat Tatio sumendia da, eremutik 10 km-ra dagoena. Geyserrak zein sumendia Puna izeneko eremu bolkaniko handiago baten parte dira. Eremu horrek 50.000 km²-ko azalera du, eta Boliviarraino iristen da. Tatio sumendian ez da erupziorik izan azken 10.000 urteetan, baina Punako eremu bolkanikoak aktibo jarraitzen du lurrazalaren azpian, eta horregatik sortzen dira geyserrak.

Euri-ura eta elur-ura kanporatzen dute geyserrak. Lur azpitik iragazten da ura Tatio eremutik 20 km-ra. Ur hori faila-sistema batean barrena abiatzen da, lurpean dauden urtegi batzuetara iritsi arte. Ura urtegietan biltzen denean,



PHILLIE CASABLANCA

berotzen hasten da arroka magmatikoen beroaren ondorioz. Urtegia bete eta, azkenean, ur beroa konbekzioz igotzen da lurrazaleraino iristen diren hodi natural batzuen bidez... orduan sortzen dira geyserrak.

Lurpeko urtegiek ur-soberakina kanporatzen dutenean, presioa txikitu egiten da, eta geyserrak gelditu egiten dira. Ikuskizunak ordu eta erdi inguru irauten du. Hurrengo egunera arte iraungo du barealdiak. ●



MARKUS BIEHAL, WWW.WESTAUSGANG.DE